**2.- Erakunde onuradunak**

Gazte eta aisialdi elkarteak edo erakundeak, baldin eta egoitza edo ordezkaritza Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian badute eta, berariaz, gazteei zuzenduriko jarduerak sustatzen badituzte.

**3.- Eskaerak aurkezteko epea**

2011ko ekainaren 3ko 14:30era arte aurkeztu ahal izango da eskaera. Horrekin batera, jatorrizko aurrekontua eguneratuta aurkeztuko da, eta arrazoitu egin beharko da materiala erosteko premia.

**4.- Balorazio Batzordea eta ebazpena**

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

- Gazteriako teknikari bat
- Zerbitzu Orokorretako burua
- Idazkaritza Teknikoko burua

Batzorde horrek emakida proposamena idatziko du, eta Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak ebatziko du eman ala ez. Horretarako hiru hilabete izango dira, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzendaritzaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari.

**5.- Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa**

Hamar mila euro (10.000 euro) esleitu zaizkio programa honi, eta 2011ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 partidaren kontura ordainduko dira.

Zenbat diru dagoen, materialaren kostuaren ehuneko 75 diruz lagundu ahal izango da, ondoko hauek oinarri:

-. Erakundearen proiektua aurrera eramateko beharrezko materiala erosi behar izatea. Gehienez, 10 puntu.

-. Erakundeak horretarako dirua jarri behar izatea. Gehienez, 10 puntu.

**6.- Dirulaguntza nola ordaindu**

Dirulaguntza dena batera ordainduko da, gastua egiaztatu eta gero.

**7.- Erakunde onuradunaren betebeharrak**

Honakoak aurkeztuko ditu Foru Erakundean, dirulaguntza eman ondorengo bi hilabeteen barruan, gehienez ere:

Egindako gastu osoaren zenbatekoa adierazten duten jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, dirulaguntza jaso duen erakundearen izenean. Aitzitik, 300 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagirien jatorrizko agiriak eskatuz gero, zigilu marka jarriko zaie, eta bertan dirulaguntza, zeina justifikatzeko aurkeztu diren, agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere.

Azken kasu horretan, dirulaguntza xede den zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

- Dirulaguntza emateko izan den ebazpena zehazten duen beste edozein agiri.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 28a.– Zuzendari-kudeatzailea, EDURNE RAMÓN OLANO.

**2.- Entidades beneficiarias**

Asociaciones y entidades juveniles o de Tiempo Libre con sede o delegación en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño que promuevan actividades específicamente dirigidas a la juventud.

**3.-Plazo de presentación de solicitudes**

La solicitud se podrá presentar hasta las 14:30 del día 3 de junio 2011. A la misma se acompañará presupuesto original actualizado y fundamentación de la necesidad de la adquisición del material.

**4.- Comisión de Valoración y Resolución**

Las solicitudes serán examinadas por una Comisión de Valoración compuesta por las siguientes personas:

- Un Técnico o Técnica de juventud
- La Jefa de Servicios Generales
- El Jefe de Secretaría Técnica

Esta comisión redactará un informe de propuesta de concesión y la Directora-Gerente del Instituto Foral de la Juventud resolverá concediendo o denegando la solicitud en el plazo máximo de tres meses a partir del día siguiente a la fecha de finalización del plazo de la presentación de solicitudes.

Contra la resolución de la Dirección cabrá recurso ante el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud.

**5.- Disponibilidad presupuestaria y cuantía de la subvención**

La cantidad asignada a este programa asciende a diez mil euros (10.000 euros) con cargo a la partida 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 del presupuesto de 2011.

Sobre la base de esta disponibilidad presupuestaria, se podrá subvencionar hasta un 75 por ciento del coste del material, teniendo en cuenta las siguientes variables:

-. Necesidad de la compra del material para llevar adelante el proyecto de la entidad. Hasta 10 puntos.

-. Aportación económica de la entidad para tal fin. Hasta 10 puntos.

**6.- Pago de la subvención**

Se realizará un único pago por el importe de la subvención una vez justificado el gasto.

**7.- Obligaciones de la entidad beneficiaria**

En el plazo máximo de dos meses a la concesión de la subvención, deberá presentar al Instituto:

Facturas o comprobantes de pago originales, a nombre de la entidad subvencionada, correspondiente a la totalidad del gasto efectuado. En los supuestos de facturas de gasto superiores a 300 euros, se deberá acreditar que se ha efectuado el pago de las mismas.

En el caso en que la entidad requiriera los originales de las facturas o comprobantes de pago presentados, éstos se marcarán con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención.

En este último caso se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

- Cualquier otra documentación que determine la resolución por la que se haya concedido la subvención.

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2011.– La directora-gerente, EDURNE RAMÓN OLANO.

## GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**1288**

**Izaera zehatzeko edo aparteko eta ezohiko jardueretarako deialdia.**

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko martxoaren 29an, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Bertan xedatutakoaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2011ko otsailaren 28an egindako bilkuran,

## INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

**1288**

**Convocatoria para actividades de carácter concreto o extraordinario y no habitual.**

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud aprobó con fecha 29 de marzo de 2010 las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Instituto Foral de la Juventud.

De acuerdo con lo dispuesto en las mismas, el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud, en la reunión de fecha

onetsi egin du gazteentzat diren izaera zehatzeko edo aparteko eta ezohiko jardueretarako 2011ko deialdia.

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Laguntza ekonomikoak ematea Arabako Lurralde Historikoko gazteentzat diren izaera zehatzeko edo aparteko eta ezohiko jardueretarako.

**2.- Erakunde onuradunak**

Gazte elkarteak, aisialdikoak, horiek koordinatzen dituztenak eta gazteekin esku-hartze proiektu bat aurkezten duten entitate edo erakundeak, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

a) Borondatezkoak izatea eta irabazteko xederik gabekoak.

b) Legez eratua izatea eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan behar bezala izena emanda egotea.

c) Gazteentzako jarduerak etengabe aurrera eramatea izatea helburu nagusia.

**3.- Eskaerak aurkeztea**

2011n zehar egingo diren jardueretarako, 2011ko ekainaren 15eko 14:30erako aurkeztu beharko dira eskaerak.

**4.- Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa**

Hamahiru mila euro (13.000 euro) esleitu zaizkio programa honi, eta 2011ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 partidaren kontura ordainduko dira.

Aurrekontuko zuzkidura hau oinarritzat hartuta, diru kopuru bat emango da balorazio irizpide hauei jarraituta:

a) Proiektuaren originaltasuna

b) Gazteen parte hartzea, proiektua taxutu eta garatzean.

c) Jarduerak Arabako gazteengan duen eragina.

d) Beste erkidego batzuetako edo beste herrialde batzuetako gazteekin izandako esperientziak trukatzea.

e) Araban egiten diren oihartzun handiko ekitaldiak.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko memorian aurkeztutako gastuen ehuneko 80.

**5.- Balorazio Batzordea eta ebazpena**

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

- Gazteriako teknikari bat
- Zerbitzu Orokorretako burua
- Idazkaritza Teknikoko burua

Batzorde horrek emakida proposamena idatziko du, eta Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak ebatziko du eman ala ez. Horretarako hiru hilabete izango dira, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita, hiru hilabete izango dira laguntza eskaera ebazteko, alegia, hura eman ala ukatzeko. Eskaera onartzeko, zuzendari-kudeatzaileak programan sartu nahi dituen aldaketak onar ditzala jar dakioke baldintzatzat eskatzaileari.

Zuzendaritzaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari.

**6.- Dirulaguntza nola ordaindu**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 40, dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko 60a, hurrengo puntuan zehazten den memoria aurkeztu eta gero.

**7- Erakunde onuradunaren betebeharrak**

Behin dirulaguntza emanda eta jarduera bukatuta, bi hilabeteko epea izango du erakunde onuradunak hauexek aurkezteko, Foru Erakundean:

1. Jarduueraren memoria
2. Gastuen zerrenda.

28 de febrero de 2011 ha aprobado la convocatoria para actividades de carácter concreto o extraordinario y no habitual dirigidas a la juventud en el tiempo libre para el año 2011

**1.- Objeto de la subvención**

Ayudas económicas para actividades de carácter concreto o extraordinario y no habitual que sean de interés para las personas jóvenes del Territorio Histórico de Álava.

**2.- Entidades beneficiarias**

Asociaciones juveniles, de Tiempo Libre, asociaciones coordinadoras de las anteriores y entidades u organizaciones que presenten un proyecto de intervención con jóvenes y que reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener carácter voluntario y sin ánimo de lucro.

b) Estar legalmente constituida y debidamente inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

c) Tener como objetivo básico el desarrollo de actividades para la juventud de forma continuada.

**3.- Presentación de solicitudes**

El plazo de presentación de solicitudes, para las actividades que se desarrollen a lo largo del año 2011, será hasta las 14:30 horas del día 15 de junio de 2011.

**4.- Disponibilidad presupuestaria y cuantía de la subvención**

La cantidad asignada a este programa asciende a trece mil euros (13.000 euros) con cargo a la partida 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 del presupuesto de 2011.

Sobre la base de esta dotación presupuestaria se concederá una cantidad conforme a los siguientes criterios de valoración:

a) Originalidad del proyecto

b) Participación de jóvenes en la elaboración y desarrollo del mismo.

c) Repercusión de la actividad en las personas jóvenes alavesas.

d) Intercambio de experiencias con personas jóvenes de otras comunidades o países.

e) Eventos de gran repercusión que se lleven a cabo en nuestro territorio.

El importe de la subvención no excederá del 80 por ciento de los gastos presentados en la memoria.

**5.- Comisión de Valoración y Resolución**

Las solicitudes serán examinadas por una Comisión de Valoración compuesta por las siguientes personas:

- Un Técnico o Técnica de juventud
- La Jefa de Servicios Generales
- El Jefe de Secretaría Técnica

Esta comisión redactará un informe de propuesta de concesión y la Directora-Gerente del Instituto Foral de la Juventud resolverá concediendo o denegando la solicitud en el plazo máximo de tres meses a partir del día siguiente a la fecha de finalización del plazo de la presentación de solicitudes.

La solicitud se resolverá en el plazo de tres meses a partir de la fecha de finalización del plazo para la presentación de solicitudes, pudiendo condicionarla a la conformidad por parte del solicitante con las variaciones que aquélla considere oportuno introducir en el programa.

Contra la resolución de la Dirección cabrá recurso ante el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud.

**6.- Pago de la subvención**

El abono de la subvención se hará efectivo en dos pagos:

- El 40 por ciento en el momento de la concesión de la subvención y el 60 por ciento restante previa presentación de la memoria que se especifica en el punto siguiente.

**7- Obligaciones de la entidad beneficiaria**

Una vez concedida la subvención y finalizada la actividad, la entidad beneficiaria tendrá un plazo de dos meses para presentar en el Instituto:

1. Memoria de la actividad
2. Relación de los gastos.

3. Gastuen eta diru sarreren balantzea (egondako gastuak eta diru sarrerak deskribatuta)

4. Dirulaguntza jaso duen erakundearen izenean eman diren jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, jarduerak egiteak eragindako gastuen zenbateko osoa adierazita.

* Aitzitik, 300 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

* 100 euro baino gutxiagoko fakturetan, datu hauek jasoko dituen gastuen justifikazio erraztu bat egingo da: data, hornitzailea, kontzeptua eta zenbatekoa.

Gazteriaren Foru Erakundeak laginketa bidez eskatu eta egiaztatuko ditu egoki irizten dituen frogagiriak, nahitaez aurkeztu behar ez direnak; horretarako, hautatutako gastuak bidaltzeko eskatu ahal izango da.

Era berean, ez dira onartuko ordain frogagiri gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen arloan zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagirien jatorrizko agiriak eskatuz gero, zigilu marka jarriko zaie, eta bertan dirulaguntza, zeina justifikatzeko aurkeztu diren, agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere.

Azken kasu horretan, dirulaguntza xede den zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

- Dirulaguntza emateko izan den ebazpena zehazten duen beste edozein agiri.

Memoria aurkezteko epea abenduan bukatzen bada, abenduaren 16rako aurkeztuko da.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 28a.– Zuzendari-kudeatzailea, EDURNE RAMÓN OLANO.

3. Balance de gastos e ingresos (con descripción de los gastos e ingresos habidos)

4. Facturas o justificantes de gasto originales extendidos a nombre de la entidad subvencionada, por el importe total de gastos correspondiente a la realización de actividades.

* En los supuestos de facturas de gasto superiores a 300 euros, se deberá acreditar que se ha efectuado el pago de las mismas.

* En los supuestos de facturas de gasto inferiores a 100 euros, se hará una justificación simplificada de los gastos donde consten los siguientes datos: fecha, proveedor, concepto e importe.

El Instituto Foral de la Juventud podrá solicitar y comprobar, a través de técnicas de muestreo, los justificantes que estime oportunos de los cuáles no hubiese sido obligada su presentación, pudiendo requerir la remisión de los gastos seleccionados.

No se admitirán como gastos justificativos, aquellas facturas y/o recibos que no cumplan con la normativa fiscal en materia de retenciones a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

En el caso en que la entidad requiriera los originales de las facturas o comprobantes de pago presentados, éstos se marcarán con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención.

En este último caso se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

- Cualquier otra documentación que determine la resolución por la que se haya concedido la subvención.

Cuando el plazo para la presentación de la memoria finalice en el mes de diciembre, dicha presentación se efectuará para el día 16 del mismo mes.

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2011.– La directora-gerente, EDURNE RAMÓN OLANO.

## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**1463**

### Zenbait jakinarazpen

Erakundeari ez dagozkion arrazoiengatik ondokoei ezin izan zaie jakinarazi informazio hau; beraz, iragarki honen bidez, ondoko hartzaileei administrazio egintzaren berri izateko bertara daitezela eskatzen zaie.

Interesdunak edo bere ordezkariak gehienez 15 egun izango ditu iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 3 zenbakiko bulegoa. 01005 Gasteiz) 8:15etik eta 14:30era bitartean agertzeko.

Aipatutako epea igarota, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da ondorio guztietarako.

| ZORDUNA | KONTZEPTUA | ADMINISTRAZIO EGINTZA |
|---|---|---|
| Angel ACUÑA ESPARRAGO<br>16.236.937 H | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| José Antonio LOPEZ DE ARECHAVALETA ANGULO<br>16.283.939 P | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Paula MURIEL SERPA<br>X 624681 L | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Gabriel Pilar ZAVALA MORAGA<br>X 8572355 V | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Claudia Marcela BEDOYA<br>X 5444260 E | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Martín PEREZ DE NANCLARES RODRIGO<br>16.122.162 J | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Ana Cristina ACOSTA HURTADO<br>X 7394218 N | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Marek MICHAJLOWSKI<br>X 2523157 B | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |
| Marilane REZENDE ARAUJO<br>X 2511012 X | Oinarrizko errenta | Ordaintzeko errekerimendua |

## INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**1463**

### Notificaciones varias

No habiendo sido posible practicar la notificación por causas no imputables a este Instituto, por el presente anuncio, se cita a los destinatarios que a continuación se relacionan, para ser notificados, del Acto Administrativo que se expresa.

El interesado o su representante, deberán comparecer en el plazo máximo de 15 días naturales, a partir del siguiente al de publicación de este anuncio, en horario de 08:15 a 14:30 horas, en el domicilio de este Instituto Foral de Bienestar Social, sito en la calle General Álava, nº 10, Planta 5ª, Departamento 03, C.P. 01005 de Vitoria-Gasteiz.

Transcurrido dicho plazo, la notificación se entenderá realizada a todos los efectos.

| DEUDOR | CONCEPTO | ACTO ADMINISTRATIVO |
|---|---|---|
| Angel ACUÑA ESPARRAGO<br>16.236.937 H | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| José Antonio LOPEZ DE ARECHAVALETA ANGULO<br>16.283.939 P | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Paula MURIEL SERPA<br>X 624681 L | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Gabriel Pilar ZAVALA MORAGA<br>X 8572355 V | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Claudia Marcela BEDOYA<br>X 5444260 E | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Martín PEREZ DE NANCLARES RODRIGO<br>16.122.162 J | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Ana Cristina ACOSTA HURTADO<br>X 7394218 N | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Marek MICHAJLOWSKI<br>X 2523157 B | Renta Básica | Requerimiento de Pago |
| Marilane REZENDE ARAUJO<br>X 2511012 X | Renta Básica | Requerimiento de Pago |